

**UDALEKU IREKIETAN ARANZADI IKASTOLAREN ERABILERA ARAUTZEKO
HITZARMENA**

Bergaran, 2023ko maiatzaren 23an

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkartzan.

Bestetik, Miren Agurtzane Loidi Larrañaga andrea, adinez nagusia, Bergarako Aranzadi ikastolako zuzendaria, Aranzadi ikastolaren izenean,

Bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengo adierazi dute.

ADIERAZPENAK

2023ko Udaleku irekiak antolatzeko, Bergarako Udalak Aranzadi ikastolari bertako espazio batzuk erabiltzeko baimena eskatu dio.

Udaleku irekiak ekainaren 26an hasi eta uztailaren 21era arte izango dira goizeko 9:45etik 13:15era.

Udalak Udalekuak Jardun euskara elkartearen bidez antolatu ditu, kontratatuko diren begirale guztiak Jardunek kontratatuko ditu.

KLAUSULAK

LEHENENGOA: UDALAREN BETEBEHARRAK.

Udalekuak direla eta, gertatutako kalteen (apurketak, desagerpenak,...) ordainketa bere gain hartuko du.

Udalekuak eta hauen antolaketa irautean duten bitartean, udalekuetako arduradunak udalarekin eta zentroko zuzendaritzarekin harremanetan egongo dira. Eraikuntzan edozein kalte gertatuz gero, zentroko zuzendaritzari jakinaraziko diote.

Udalekuetako parte-hartzaileek jasotako eta sortutako kalteengan, ez du Aranzadi ikastolak inolako erantzukizunik izango.

Programa hau bukatutakoan programa hau aurrera eramateko kontratatutako langileek instalazioak garbi utziko dituzte, aurkitu dituzten moduan.

BIGARRENA: ARANZADI IKASTOLAREN BETEBEHARRAK.

Udalekuetarako Aranzadi ikastolak ondorengoak utziko ditu:

- 9 gela eta komunak (bai eraikin barruan bai patioko komun txikia).

HIRUGARRENA: HITZARMENAREN IRAUPENA.

Hitzarmen honek 2023ko Udaleku irekietarako balioko du, hauek bukatutakoan (eta hitzartutakoak betetakoan) sinatzaileek ez dute elkarrenganako inolako erantzukizunik izango.

Horrela jasota geratzeko, eta hitzartutakoarekin ados daudela eta bertan jasotakoa zintzo eta leial beteko dutela adierazteko, hitzarmen honen hiru kopia sinatu dituzte, hasieran aipatutako toki eta egunean.



A circular official stamp of the Bergarako Alkatea (Mayor's Office). It features a central emblem with a star and the text 'BERGARAKO UDALA' and 'AYUNTAMIENTO DE BERGARA'. A signature is written over the stamp.

Begarako Alkatea
Gorka Artola Alberdi



A stylized logo for Aranzadi Ikastola, featuring a blue 'A' shape with a star and the text 'ARANZADI ikastola'.

San Martin plaza, 4 • 20570 Bergara
Tel.: 943 769 071 • Faxa: 943 769 177

Aranzadi ikastolako zuzendaria
Miren Agurtzane Loidi Larrañaga